



Askatasuna txirikordatan



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Granadako Erresuma Berria, XVI. mendearen amaiera. Espainiako koroarentzat ihes egindako esklaboak, zimarroiak, geroz eta arazo handiagoa ziren Karibe aldeko lurretan. Afrikar esklaboek ihes egitean nagusiek eskulana galtzen zuten; hasieran, aleka-aleka. Baina zimarroiak geroz eta hobeto antolatu ziren. *Palenque* edo *quilombo* izeneko komunitateetan bildu ziren; etxaldekak eta plantazioak erasotzen zituzten, esklaboak askatzeko; eraso horietan hornigaiak lapurtzen zituzten; kontrabandoan aritzen ziren piratekin nahiz merkatarik europarrek... Espainiarrak saiatu ziren hainbat espedizioren bidez *palenqueak* topatu eta suntsitzen, baina zimarroiak nahiz oraindik esklabo zirenek askoz hobeto ezagutzen zituzten inguruko oihan trinkoa eta erliebe malkartsua. Horregatik, behin baino gehiagotan espainiarrek zimarroiarekin negoziatu behar izan zuten. Zimarroiak hobeto moldatzen ziren inguru haietan, besteak beste, kartografia metodo berezi bat garatu zutelako, denen bistan, baina ezkutuan.

Granada Berriko esklaboak ez ziren bakarrak izan Afrikan, aske zirenean, zituzten ohiturei ahal zen neurrian eusten. Beste leku batzuetan ere ilea txirikorda bihurrietan biltzen jarraitu zuten, nola edo hala identitateari eutsi nahian. Bai-




Karibe aldeko esklabu afrikarrek ilean txirikordak egiteko ohiturari eutsi zioten eta txirikorda haiek askatasuna lortzeko bidea eman zieten askori.

na Karibeko esklabo horiek buruko marrazki haiei beste erabilera bat eman zieten. Emakumeek egiten zizkieten elkarri ilekordak eta, gainera, emakumezko esklaboei gizonezkoei baino askatasun handixeagoa uzten zieten plantazioen inguruetan ibiltzeko, itxuraz arrisku gutxiago zutelako. Hala, etxaldetik urruntzeko aukera zutenean, erliebeari erreparatzen zioten, errekei, landarediari,



edozein motatako mugarriri... eta, ikusitakoa eta ibilitakoa gogoan hartuta, elementu horiek txirikordetan marrazten zizkieten elkarri, ugazaben susmorik piztu gabe, iheslarientzako mapa bat osatuz.

Gainera, diotenez, txirikordak egitean plantaziotik lapurtutako haziak gordezten zituzten ile artean, gero *palenque* askeetan ereiteko. ●



Mosul digitalki berregin dute

2014 eta 2017 artean, Mosul (Irak) Estatu Islamiarraren hiriburu izan zen, eta erregimenaren nahiz nazioarteko tropen erasoan ondorioz, 2.500 urteko ondare historiko eta artistikoa suntsituta geratu zen. Asiriako hiriburu Nimrud eta Ninive erraustuta geratu ziren, baita Erdi Aroko Al-Nuri meskita ere, besteak

beste. Orain, Google Arts & Culture plataformak, *The Art & Soul of Mosul* izeneko ekimenaren bidez, ondare hori digitalki berregin du eta hiru dimentsiotako ereduak eskaintzen ditu galdutako ondarea bisitatzeko. Besteak beste Ishtareko Tenpluko lehoi zaindari ezagunetako bat berregin dute proiektu honetan. ●